

6. artikulua.- Laguntzen zenbatekoak eta ehunekoak

6.1.- Agindu honetan bildutako laguntzak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen bitartez gauzatuko dira, jarraian zehazten diren zenbateko eta ehunekoen arabera:

4. artikuluko idatz-zatiekiko baliokidetasuna	Kontzeptuaren deskribapen laburra	Tokiz gaindiko esparrua eta turismoa sustatzeko 3 hiriburuetakoko erakundeak		Toki-esparrua	
		Onetsitako zenbatekoaren gaineko gehieneko laguntza-ehunekoak	Laguntzaren gehieneko muga (eurotan)	Onetsitako zenbatekoaren gaineko gehieneko laguntza-ehunekoak	Laguntzaren gehieneko muga (eurotan)
4.1 TLEak eta TKEak sendotzea					
4.1.c.1	Langileak kontratatzeagatiko gastuak (zuzeneko kontratazioa)	% 85/ % 90 (1)	38.500/pertsona bakoitzeko	--	--
	Langileak kontratatzeagatiko gastuak (laguntza teknikoa)	% 50	21.000/pertsona bakoitzeko	--	--
4.1.c.2	Plan espezifikoak egiteko aholkularitzarako laguntza teknikoa	% 50	15.000	--	--
4.1.c.3	Ekipamendu informatikoa erostea eta laguntza teknikoa	% 50	12.000	--	--
4.2 Helmugetako lehiakortasuna hobetzea					
4.2.a	Jardunbide Egokien programak				
4.2.a.1 y 4.2.a.2	Erakunde eskatzaileko langileak	% 85	38.500/pertsona bakoitzeko	% 85	38.500/pertsona bakoitzeko
	Espezifikoki helburu horretarako zuzeneko kontratazioa	% 85	38.500/pertsona bakoitzeko	% 85	38.500/pertsona bakoitzeko
	Kanpoko laguntza teknikoa	% 50	21.000/pertsona bakoitzeko	% 50	21.000/pertsona bakoitzeko
4.2.b	Kudeaketa-eredua txertatzea (kalitatea eta ingurumena)				
4.2.b	Ziurtagiria lortzea	70	6.000	70	6.000
	Ziurtagiria berritzea	50	3.000	50	3.000
4.2.c	Irisgarritasuna Hobetzeko programa	50	12.000	50	12.000
4.3 Produktuak, planak, esperientziak, playgroundak eta zirkuituak sortzea eta garatzea					
4.3.a	Produktuen azterlan espezifikoak (plan baten ondoriozkoak), bideragarritasun-planak, eta abar	% 50	12.000	% 50	6.000

	Sorkuntza eta garapena	% 50 / % 80 (2)	150.000	% 50 / % 80 (2)	100.000
4.4	Produktuen, esperientzien, playgrounden eta zirkuituen eta helmugen sustapena eta marketina				
4.4.a.1	Produktuen eta helmugen eta Marketin Planaren komunikazio- eta salmenta-taktiken sustapena eta marketina	% 50 / % 80 (2)	25.000/ 70.000	% 50 / % 80 (2)	10.000
4.4.a.2			100.000 (3)		
4.4.a.3	Ekitaldi bereziak antolatzea	% 50	15.000/ 30.000 (4)	% 50	15.000/ 30.000 (4)

6.1.a) (1) Berezko nortasun juridikoa duten eta eskusiboki turismo-esparruan diharduten eskualdeko turismo-lankidetzarako erakundeetarako langileak kontratatuzeko diru-laguntzen ehunekoa % 90 izango da.

6.1.b) (2) Esperientziei, Playgroundei eta TOP Zirkuituei buruzko jardunetarako diru-laguntzen ehunekoa % 80 izango da.

6.1.c) (3) Ondoren adierazitakoek gauzatutako sustapen- eta marketin-jardunetarako -4.4.a)1 eta 4.4.a)2 artikuluan bildutakoetarako- diru-laguntzen gehieneko zenbatekoak:

EAEko hiru hiriburuetako erakunde sustatzaileen kasuan, gehienez 100.000 euro.

"Lankidetzaren Erakundeak", "Turismo-kudeaketarako Egituren", mankomunitateen, kuadrillen, eskualde-esparruko garapen-agentzien, eta eskualdeko landa-garapenerako elkarten kasuan, gehienez 70.000 euro.

Irabazi-asmorik gabeko turismo-elkarteen eta -erakundeen eta tokiz gaindiko fundazioen kasuan, "lankidetzaren-erakunde" edo "kudeaketa-egitura" gisa aitortuta ez badaude, gehienez 25.000 euro.

6.1.d) (4) Euskal Autonomia Erkidegoan egindako ekitaldiak antolatzeko diru-laguntza 15.000 euro izango da gehienez, eta EAETik kanpo egiteko ekitaldiak antolatzeko, osterara, gehienez 30.000 euro.

6.2.- 7. artikuluan deskribatutako esleipen-prozedura aplikatu ondoren oraindik aurrekontu-eskuragarritasuna badago, eskabide guztietara modu uniformearen arabera ahal izango dira lehen adierazitako ehunekoak, irisgarritasuna hobetzeko programari buruzko azpiegitura-inbertsioengatik gastuei dagozkienak (4.2.c artikulua), onetsitako gastuaren % 80raino; kasu honetan, gehieneko diru-laguntza 19.200 eurokoa izango da.

6.3.- Artikulu honetako taularen goiburuan bildutakoaren arabera, erakunde onuradun bakoitzak deialdi bakoitzeko eta Agindu honetan ezarritako kontzeptu guztiengatik jaso dezakeen

gehieneko diru-laguntza honako hau izango da, jardun-eremuaren eta erakunde-motaren arabera:

6.3.a).- 280.000 euro, "Eskualdeko turismo-lankidetzarako erakundeetarako" eta "Turismo-kudeaketarako Egituretarako" eta turismoa sustatzeko EAEko hiru hiriburuetarako erakundeetarako.

6.3.b).- 240.000 euro eskualde-esparruko gainerako erakunde onuradunetarako.

6.3.c).- 150.000 euro toki-esparruko erakunde onuradunetarako.

6.4.- Nolanahi ere, gastu edota inbertsio onargarri gisa zenbatuko da gastu edo inbertsio horren balio "garbia", halakotzat hartuz Balio Erantsiaren Zerga kendu ondoren fakturatutako zenbatekoa.